

Euskal AEko jaiotzak % 3,3 gutxitu dira 2021eko hirugarren hiruhilekoan

Ezkondu gabeko ametatik jaiotakoak guztien % 48,4 izan ziren

2021eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn 3.783 haur jaio ziren, aurreko urteko denboraldi berean baino % 3,3 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Araban izan da beherakada handiena, 606 haur jaio baitziren, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 5,8 gutxiago; Gipuzkoan 1.319 jaiotza izan ziren, % 3,1 gutxiago; Bizkaian 1.858 jaiotza, % 2,7 gutxiago.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak guztizkoaren % 48,4 izan ziren, 2020ko hiruhileko berean erregistratutako % 47,2tik gora.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 1.860 haur (% 49,2) lehen seme-alabak izan ziren 2021eko udako hilabeteetan; 1.411 (% 37,3) aurretik beste seme-alaba bat zegoen familietara iritsi ziren, eta % 13,5 hirugarren edo ondorengo seme-alabak izan ziren.

10 amatik 8 30 urtetik gorakoak ziren

Amaren adinaren arabera, 30-34 urteko taldea da nagusi oraindik ere: erditzeen % 34,9. Talde horren ondoren, goragoko hurrengo taldea dago, 35-39 urtekoa, % 34,3rekin. 25-29 urteko taldea % 13,4 da, eta 25 urtetik beherakoa % 6,1. Nabarmenezkoa da 40 urte edo gehiagoko emakumeen taldeak % 11,3ko ekarpena egiten duela.

Amen batez besteko adina 33,5 urtekoa da, eta aldeak daude ama ezkonduen (34,1 urte), ama ezkongabeen (32,7 urte) eta dibortziatuen (37,6 urte) artean.

Atzerriko nazionalitatea duten amen ehunekoak behera egin du

Euskal AEko jaiotzen % 27,2an, 2021eko uztailan, abuztuan eta irailean, amek atzerriko nazionalitatea zuten, aurreko urteko denboraldi bereko % 27,8aren zertxobait azpitik. Ehuneko hori Araban gainditu zen, % 32,9ra iritsi baitzen. Bizkaian eta Gipuzkoan, atzerriko nazionalitatea zuten amen proportzioa % 27,2koa eta % 26,7koa izan zen, hurrenez hurren.

Amatasunaren adina ere aldatu egiten da nazionalitatea kontuan hartzen badugu. Izan ere, ama atzeritarren batez besteko adina 31,1 urtekoa izan zen, espainiar nazionalitateko amen 34,5 urteko adinaren aldean.


Euskal AEn bizirik jaiolak, lurralde historikoaren, adinaren, egoera zibilaren, amaren nazionalitatearen eta jaiotza-ordenaren arabera (1). 2021/III

	Oraingo hiruhilekoa III/2021		Aurreko hiruhilekoa III/2021		Aurreko urteko hiruhileko bera	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Euskal AE	3.783	100,0	3.539	100,0	3.914	100,0
Araba / Álava	606	16,0	577	16,3	643	16,4
Bizkaia	1.858	49,1	1.740	49,2	1.910	48,8
Gipuzkoa	1.319	34,9	1.222	34,5	1.361	34,8
AMAREN ADINA						
24 urte edo gutxiago	231	6,1	222	6,3	263	6,7
25 - 29 urte	507	13,4	435	12,3	526	13,4
30 - 34 urte	1.322	34,9	1.249	35,3	1.362	34,8
35 - 39 urte	1.297	34,3	1.245	35,2	1.318	33,7
40 urte edo gehiago	426	11,3	388	11,0	445	11,4
Amaren egoera zibila						
Ezkondua	1.952	51,6	1.841	52,0	2.067	52,8
Ezkon gabea	1.831	48,4	1.698	48,0	1.847	47,2
Amaren nazionalitatea						
Espainiarra	2.754	72,8	2.616	73,9	2.824	72,2
Atzerrikoa	1.029	27,2	923	26,1	1.090	27,8
Jaiotza-ordena						
Lehenengoa	1.860	49,2	1.716	48,5	1.987	50,8
Bigarrena	1.411	37,3	1.354	38,3	1.410	36,0
Hirugarrena edo gehiago	512	13,5	469	13,3	517	13,2

(1)Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira

Data 2022ko Otsailaren 7a

Iturria: Eustat, Jaiotzen Estatistika



Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estadistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estadistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62